

EGKren adierazpena Giza Eskubideen aurkako erasoen aurrean

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bere errefus osoa adierazi nahi du pasa den asteburuan Karrantza-Zuazo Bizkaiko erregionaleko partidan gertatutakoaren aurrean.

Hau esanda, lehenik eta behin hitzezkoa eta fisikoa izan den indarkeria hauek pairatu dituzten pertsona guztiei, bereziki gazteei, beraien elkartasuna helarazi nahi die, hala nola, gertakarian inplikaturako eta honen berri emateko ardura hartu duten pertsonen nahiz errefusa adierazi duten eragile guztien jarrera eta ekintzak txalotu.

Kasu honetan, gainera, gazteen Giza Eskubideak urratzen dituzten hainbat motako Indarkeriak dira salatu beharrekoak, hala nola, klubeko zuzendariak bertan egon eta duen karguagatik jasandakoa ere. Alde batetik, Indarkeria Matxista, partidan zegoen marrazainetako batek jasandakoa eta, bestetik, jokalarietako baten aurka eman zen Indarkeria Arrazista.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunean, kulturartekotasunean eta aniztasunean oinarritzen den bizikidetza da EGKtik bultzatu eta eskatzen dena eta horrelako ekintzek gazteria den kolektiboaren hiritartasun eskubideen aurkakoak dira.

Hau dela eta, gazterian Giza Eskubideak urratzen dituen beste edozein indarkeriaren aurrean egiten den bezala, gertatutakoa salatu eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gogorarazi nahi ditu bere hobekuntzarako proposamenak:

Giza Eskubideen ikuspegitik:

- Indarkeriaren erabileraren bidegabekeriari buruzko kontzientziakoa.
- Indarkeriaren erabilera orori, den formakoa dela ere (zuzena, zeharkakoa, estrukturala...), zilegitasuna kentzea.
- Gertatutakoa berriro pasako ez dela bermatzea eta Giza Eskubideak urratu zaizkion biktima orok merezi duen onarpena, erreparazioa eta justizia aldarrikatzea.
- Giza Eskubide ororen errespetuan oinarritua dagoen bake-kulturaren sorrera azpimarratzen duten baloreak bultzatzea.

Berdintasun ikuspegitik:

Alde batetik, Administrazioari:

Harrera juridikoari dagokionez:

- Tratu, neurrien ezarpen eta kontrolaren hobekuntza.
- Emakume ororen aurkako Indarkeria Matxista marko juridiko berdinak babestea.
- Salaketaren estigma ekiditea.

Prebentzioari dagokionez:

- Berdintasuna sustatzeko hezkuntzan azentua ezartzea.
- Ikerketa eta datu eguneratuak ziurtatu.

- Behatokiaren hobekuntza, beharrezkoa den informazio guztia era argian jasoz.

Arazoaren trataerari dagokionez:

- Bereizketa faktore anitzen intersekzioaz eta honen inpaktuaz arduratu.

Bestetik, gazteriari:

- O Tolerantzia eta inplikazioa.
- Indarkeria Matxista eta honen sustrai diren beste indarkeria eta jarreraren aurka ekin.
- Berrikasi, berrantolatu eta berdintze konpromisoa.

EGK-k ez du inoiz bidezkotzat joko apropos sortutako sufrimendurik, are gutxiago hauek Giza Eskubideen urraketan oinarritzen diren diskurtsoetan fundatzen direnean. Gorroto delituak nahiz Indarkeria Matxista ezin daitezke egungo gizartean nahiz gazterian onartu eta adierazpen honen bitartez EGK-k bere konpromisoa berresten du.